



# **EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA**

**2017 - 2020  
URTEETAKO OROITIDAZKIA**

## AURKIBIDEA

---

1. AURKEZPENA
2. EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEAREN EGITURA
3. EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEAREN OSAERA
4. EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEAK EGINDAKO BILERAK
5. ERANSKINAK
  - I. ERANSKINA: *Gazteak eta euskara. Gauzatutako praktiken gaineko gogoetarako jardunaldiak.*
  - II. ERANSKINA: *Euskararen estrategia digitalaren bila, Europari begira. Jardunaldiak*

# 1. AURKEZPENA

---

Euskararen Aholku Batzordea (aurrerantzean EAB) azaroaren 24ko 10/1982 Legearen 29. atalean aurreikusitako harreman organoa da, hizkuntza-normalizazioan diharduten erakunde publiko nahiz pribatuen ahaleginak eta ekintzak aztertzeko, bideratzeko eta koordinatzeko.

EABren funtzionamendu-arauak ezartzeko hainbat Dekretu onartu dira 30 urte hauetan, euskararen erabilaren normalkuntzak denboran zehar ekarri dituen beharretara egokitu nahian.

2017-2020 epealdian bi dekretuk ezarri dituzte EABren arauak, 176/2007 Dekretuak, urriaren 16koak eta 99/2020 Dekretuak uztailaren 28koak; hau da EABri buruzko azken dekretua, eta egun indarrean dagoena.

2017ko ekitaldian, hiru urteko kargualdia amaitu ondoren, hizkuntza-normalizazioaren prozesuan eragina duten arloetako adituen multzoa berritu zen. Horrez gain, foru aldundietako zein udaletako hauteskunderen ondorioz izandako aldaketak zirela eta, hainbat kargu-uzte eta izendapen berri egin zituen Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak 2017ko urrian.

2017ko urriaren 3an Euskararen Aholku Batzorde Osoak, aipatu Dekretuan zehaztutako Toponimia eta Terminologia Batzorde-atal berezietan gain, hiru batzorde-atal berezi onartu zituen, aho batez. Batetik, lehendik ere indarrean zeuden honako bi batzorde-atal bereziak:

- Euskara ingurune digitalean sustatzeko Batzorde-atal Berezia
- Gazteriaren Batzorde-atal Berezia

Bestetik, honako batzorde-atal berezi hau sortzea onartu zen: Euskararen erabilera eta gizartearen aktibazioa sustatzeko Batzorde-atal Berezia.

2018. urtean EAB arrazionalizatzeko eta hobetzeko ebaluazioa egin zen, eta organoaren funtzionamendua, osaera eta araudia egokitzeko beharra antzeman zen. Uztailaren 28ko 99/2020 Dekretuan egindako aldaketa nagusiak Batzordearen funtzionamendua hobetzeko eguneratze teknikoaren aldetik egindako moldaketak izan ziren. Besteak beste, honako aldaketa hauek: batzordekide kopurua murriztu, berdintasun ikuspegia txertatu edota funtzionamendu-arau batzuk aldatu.

Aurkezpenari amaiera emateko, esan behar da Dekretuan, besteak beste, zehazten dela EABren egitekoetako bat ekintzen urteko oroitidazkia onartzea izango dela. Oroitza honetan, beraz, EABren egitekoak gauzatzeko 2017-2020 urteetan burutu diren egitasmoen nahiz ekintzen gaineko informazioa emango da.

## 2. EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEAREN EGITURA

---

2017-2020 urteetan kide anitzeko organo hauek izan ditu EABk

- EABren Batzorde Osoa
- Batzorde-atal Iraunkorra
- Batzorde-atal bereziak

Hona Euskararen Aholku Batzordearen Batzorde Osoaren egitekoak, 176/2007 Dekretuan zehaztutakoaren arabera:

- Jaurlaritzak eskatuta, Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza-normalizazioari buruzko gaiak aztertzea eta ikertzea.
- Euskararen erabilerari buruzko xedapenak ondo ezartzeko behar diren neurriak proposatzea Jaurlaritzari eta dagokien erakundeei.
- Hizkuntzari loturiko gaitan eskumena duten aginte publikoen jarduera koordinatua bermatzeko neurriak proposatzea.
- Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren garapenari eta betetzeari buruzko txostenak egitea.
- Batzorde-atal Iraunkorrak egingo duen ekintzen urteko oroitidazkia onartzea.
- EABren Batzorde Osoak ekintzen urteko oroitidazkian txertatuko du
- Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren garapenari buruzko ebaluazioa.
- Batzorde-atal bereziek proposamenak eta txostenak eginez gero, horiek aztertzea.
- Legeek edo erregelamenduek aitortutako beste edozein egiteko.

Hauek dira Batzorde-atal Iraunkorraren egitekoak Dekretuaren 9. artikuluaaren arabera:

- EABren gaien ohiko tramitazioa, Batzorde Osoaren bilerarik ez denean.
- EABren ekintzen urteko oroitidazkia egitea, Batzorde Osoak onar dezan.
- Legeek, erregelamenduek edo EABren Batzorde Osoak agindutako beste edozein gai.

Dekretuaren 12. artikuluaaren arabera, EABren Batzorde Osoak edo Kultura sailburuak batzorde-atal bereziak sortzea erabaki dezakete gai zehatzei buruzko lanak eta txostenak egiteko. Batzorde-atal berezien egiteko dira Batzorde Osoari eta Batzorde-atal Iraunkorrari laguntzea beren eginkizunetan eta EABk eskatutako azterlanak egitea. Batzorde-atal bereziak iraunkorrak izan daitezke, eta eratzeko Erabakian edo Aginduan jasotakoarekin bat etorritz jardungo dute.

Dekretuaren 14. artikulua EABren barruan Toponimiako Batzorde-atal Berezia egongo dela ezartzen du, *kontuan hartzekoa baita, batetik, toponimia normalizatzeko lanen izaera eta berezitasuna eta, bestetik, toponimoak ofizial egiteko administrazio askok parte hartzen dutela. Batzorde-atal hori iraunkorra izango da eta Euskal Autonomia Erkidegoko toponimoak finkatu, aldatu eta berreskuratzeko aholkuak eta proposamenak egingo ditu.*

Dekretuaren 18. artikulua ezartzen du Terminologiako Batzorde-atal Berezia egongo dela kontuan hartzekoa baita, batetik, terminologia normalizatzeko lanen izaera eta berezitasuna eta, bestetik, era askotakoak direla terminologiaren arloan ari diren administrazio eta erakunde publiko nahiz pribatuak. Terminologiako Batzorde-atala iraunkorra izango da, eta terminologia finkatu, hedatu eta erabiltzeari buruz eta terminologiaren arloko lehentasunak ezartzeari buruz aholku ematea izango da bere xedea.

Legegintzaldiko lehen bileran, 2017ko urriaren 3an, Euskararen Aholku Batzorde Osoak batzorde-atal berezi hauek sortzea erabaki zuen, Hizkuntza Politikarako sailburuordearen proposamena aintzat hartuta:

- Euskara ingurune digitalean sustatzeko Batzorde-atal Berezia
- Gazteriaren Batzorde-atal Berezia
- Euskararen erabilera eta gizartearen aktibazioa sustatzeko Batzorde-atal Berezia.

### 3. EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEAREN OSAERA

---

EABri buruzko Dekretuaren 3. eta 4. artikuluek zehazten dituzte EABren Batzorde Osoaren osaerari eta kideen izendapenari buruzko jarraibideak.

2017-2020 ekitaldiko osaera Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian urriaren 20an argitaratu zen 2017ko urriaren 9ko Kultura eta Hizkuntza Politikako Aginduan jasotzen da.

Dekretuaren 8. artikulua berriz, Batzorde -atal Iraunkorraren osaerari buruzko xehetasunak ematen ditu.

Batzorde-atal bereziei dagokienez, EABri buruzko Dekretuak 13. artikuluan zehazten du batzorde-atal berezien jardunbidea, eta artikulua horretako 2. idatz-zatian adierazten denez, Hizkuntza Politikarako sailburuordea eta EABko idazkaria batzorde-atal berezi guztietako kide izango dira, eta eurak izango dira batzorde-atal berezi horietako lehendakari eta idazkari, hurrenez hurren.

Bestalde, ekitaldi honetan berrikuntza bat izan da. Izan ere, Hizkuntza Politikarako sailburuordearen 2017ko azaroaren 9ko Ebazpenaren bidez, eta batzorde-atal bereziek egin behar duten lanaren espezializazioa eta sakontasuna kontuan izanda, batzorde-atal berezietan, taldea dinamizatzeaz arduratuko diren zuzendariak izendatu dira.

2017-2020 urteetan, beraz, hauek osatu dute Euskararen Aholku Batzordea:

#### **EABren Batzorde Osoa**

#### ERAKUNDEETAKO ORDEZKARIAK

**Lehendakaria:** Iñigo Urkullu Renteria, Eusko Jaurlaritzako Lehendakaria

**Lehendakariordea:** Bingen Zupiria Gorostidi, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua

**Idazkaria:** Josune Zabala Alberdi, Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako zuzendaria

- Miren Dobaran Urrutia, Hizkuntza Politikarako sailburuordea
- Jokin Azkue Arrastoa, HABEko zuzendari nagusia
- Jon Iñaki Urbina Garcia de Vicuña Hezkuntza Saileko Araubide Juridiko eta Zerbitzuen zuzendaria
- Maite Iruretagoiena Iburguren, IVAPEko zuzendari nagusia
- Ane Urkiola Alustiza/Itziar Agirre Berriotxo, Ogasun eta Finantza Saileko zerbitzu zuzendaria/sailburuordea
- Odile Kruzeta Olañeta/Urko Aristi Urdampilleta, EITBren ordezkaria
- Igone Martínez de Luna Unanue/Lexuri Ugarte Aretxaga, Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Saileko diputatua/Euskararen eta Gobernu Irekiaren zuzendaria
- Lorea Bilbao Ibarra, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatua.
- Mikel Irizar Intxausti/Garbiñe Mendizabal Mendizabal, Gipuzkoako Foru Aldundiko Hizkuntza Berdintasunerako zuzendari nagusia
- Aitor Aldasoro Iturbe/Txomin Sagarzazu Ancisar, Euskal Udalen Elkarteko ordezkaria
- Andres Urrutia Badiola, euskaltzainburua, Euskaltzaindiko ordezkaria

#### EUSKO LEGEBILTZARRAK PROPOSATURIK IZENDATUAK

- Joseba Álvarez Forcade
- Gotzon Egia Goienetxea
- Iván Igartua Ugarte
- Garbiñe Mendizabal Mendizabal / Aitor Urrutia Oianguren
- Xabier Olabarrieta Arnaiz

#### HIZKUNTZA-NORMALIZAZIOAREN PROZESUAN ERAGINA DUTEN ARLOETAKO PERTSONA EZAGUNEN ARTETIK IZENDATUAK

- Juanjo Alvarez Rubio
- Kike Amonarriz Gorria
- Esti Amorrortu Gómez
- Iban Arantzabal Arrieta
- Josune Ariztondo Akarregi
- Beñat Arrabit
- Mikel Arregi Pérez
- Joseba Arruti Lafuente
- Lourdes Auzmendi Aierbe
- Miren Azkarate Villar
- Paul Bilbao Sarria
- Garbiñe Biurrun Mancisidor
- Allande Boutin
- Jasone Cenoz Iragi
- Joseba Iñaki Etxezarreta Alberdi



- Maite Goñi Eizmendi
- Jokin Gorozika Bidaurratzaga
- Jone Miren Hernandez Garcia
- Patxi Juaristi Larrinaga
- Pilar Kaltzada Gonzalez
- Elena Laka Muñoz
- Miren Elixabete Larrinaga Artetxe
- Koikili Lertxundi Del Campo
- Iñaki Martinez de Luna Perez de Arriba
- Mertxe Mugika Balanzategi
- Nerea Mujika Ulazia
- Maialen Olabe Aguirre
- Eneko Oregi Goñi
- Erramun Osa Ibarloza
- Xabier Paya Ruiz
- Pello Salaburu Etxeberria
- Jon Sarasua Maritxalar
- Miren Segurola Larrañaga
- Kirmen Uribe Urbieta
- Miriam Urkia Gonzalez
- Ana Urkiza Ibaibarriaga
- Ibon Usarralde Lasarte
- Jon Zarate Sesma

## Batzorde-atal Iraunkorra

- Toponimiako Batzorde-atal Berezitik: Nerea Mujika Ulazia
- Terminologiako Batzorde-atal Berezitik : Eneko Oregi Goñi
- Gazteen Unibertsoa eta Euskara Batzorde-atal Berezitik: Jone Miren Hernandez García
- Ingurune Digitalean Euskara Sustatzeko Batzorde-atal Berezitik: Maite Goñi Eizmendi
- Euskararen Erabilera eta Gizartearen Aktibazioa Sustatzeko Batzorde-atal Berezitik: Elena Laka Muñoz
- Arabatik: Iñaki Martinez de Luna Perez de Arriba
- Bizkaitik: Josune Ariztondo Akarregi
- Gipuzkoatik: Miren Azkarate Villar
- Iparraldetik: Beñat Arrabit
- Nafarroatik: Mikel Arregi Pérez

## Batzorde-atal bereziak

### Toponimia Batzorde-atal Berezia

**Lehendakaria:** Miren Dobaran, Hizkuntza Politikarako sailburuordea

**Idazkaria:** Josune Zabala, EABren Batzorde Osoaren idazkaria

**Zuzendaria:** Nerea Mujika Ulazia

- Ignacio De la Puerta Rueda, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumena, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saileko ordezkaria
- Elixabete Etxanobe Landajueta, Eusko Jaurlaritzaren Gobernantza Publikoa eta Autogobernua Saileko ordezkaria
- Jokin Larrañaga Larrañaga/Lexuri Ugarte Aretxaga, Arabako Foru Aldundiko ordezkaria
- Joseba Urzelai Agirre, Bizkaiko Foru Aldundiko ordezkaria
- Xabier Andonegi Santamaria, Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkaria
- Felix Mugurutz Montalban, Euskal Autonomia Erkidegoko Udalen Elkarteko ordezkaria
- Oihana Mitxelena Hoyos, Instituto Geográfico Nacional erakundearen Ordezkaria
- Roberto Gonzalez de Viñaspre Gonzalo, Euskaltzaindiko ordezkaria

Hizkuntza Politikarako sailburuordeak euskararen eta toponimiaren arloan ospe aitortua duten pertsonen artean izendatutako kideak:

- Juan Carlos Barroso Arroyo
- Isabelle Duguine
- Carlos Glaria García
- Aingeru Mikeo Azpirotz
- Endika Urtaran Motos
- Xarles Videgain
- Mattin Bacho
- Eneka Maiz Ulaiar

### Terminologia Batzorde-atal Berezia

**Lehendakaria:** Miren Dobaran, Hizkuntza Politikarako sailburuordea

**Lehendakariordea:** Maite Iruretagoien Iburguren, IVAPeko zuzendari nagusia

**Idazkaria:** Josune Zabala, EABren Batzorde Osoaren idazkaria

**Zuzendaria:** Eneko Oregi/Maite Iruretagoiena

- Araceli Diaz de Lezana Fdz. De Gamarra, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako ordezkaria
- Maite Imaz Leunda, IVAPeko ordezkaria
- Ibon Olaziregi Salaberria, Hezkuntza Sailaren Euskara Zerbitzuaren ordezkaria
- Gotzon Lobera Revilla, Euskaltzaindiko ordezkaria
- Iker Etxebeste Zubizarreta, UZEIko ordezkaria
- Xabier Alberdi Larizgoitia, EHUKo Euskara Institutuko ordezkaria

Hizkuntza Politikarako sailburuordeak euskararen eta terminologiaren arloan ospe aitortua duten pertsonen artean izendatutako kideak:

- Alberto Atxabal Rada



- Naroa Gorostiaga Barriola
- Asier Larrinaga Larrazabal
- Alfontso Mujika Etxeberria
- Mertxe Olaizola Maiz
- Pascual Rekalde Irigoien

## Ingurune Digitalean Euskara Sustatzeko Batzorde-atal Berezia

**Lehendakaria:** Miren Dobaran, Hizkuntza Politikarako sailburuordea

**Idazkaria:** Josune Zabala, EABren Batzorde Osoaren idazkaria

**Zuzendaria:** Maite Goñi Eizmendi

- Iurdana Acasuso Atutxa
- Iban Arantzabal Arrieta
- Xabier Arrieta Goiri
- Joseba Arruti Lafuente
- Lurdes Auzmendi Aierbe
- Luistxo Fernandez Ostolaza
- Gorka Julio Hurtado
- Igor Leturia Azkarate
- Aitor Lopez de Aberasturi Ortiz de Pinedo
- Montse Maritxalar Anglada
- Xabier Martin Martin
- Eneko Oregi Goñi
- Xabier Paya Ruiz
- Elisabeth Pombo Aramendi
- Miriam Urkia Gonzalez
- Josu Waliño Pizarro

## Gazteen Unibertsoa eta Euskara Batzorde-atal Berezia

**Lehendakaria:** Miren Dobaran, Hizkuntza Politikarako sailburuordea

**Idazkaria:** Josune Zabala, EABren Batzorde Osoaren idazkaria

**Zuzendaria:** Jone Miren Hernandez García

- Ander Añibarro Maestre
- Aritz Abaroa Cantuariense
- Jaime Altuna Ramirez
- Esti Amorrortu Gómez
- Ixiar Eizagirre Kerejeta
- Iñaki Eizmendi Arsuaga
- Pedro Garcia Larragán
- Jokin Gorozika Bidaurratzaga
- Andoni Iraola
- Anjeles Iztueta Azkue
- Izaskun Jauregi Sukia
- Jon Lamarka Iturbe
- Miren Elixabete Larrinaga Artetxe

- Koikili Lertxundi Del Campo
- Zuriñe Maguregi Sanchez
- Garbiñe Mendizabal Mendizabal
- Maialen Olabe Aguirre
- Ane Pedruzo Redondo
- Miren Segurola Larrañaga
- Izaskun Uribesalgo Jauregi
- Teresa Zinkunegi Otegi

## **Euskararen Erabilera eta Gizartearen Aktibazioa Sustatzeko Batzorde-atal Berezia**

**Lehendakaria:** Miren Dobaran, Hizkuntza Politikarako sailburuordea

**Idazkaria:** Josune Zabala, EABren Batzorde Osoaren idazkaria

**Zuzendaria:** Elena Laka Muñoz

- Aitor Aldasoro Iturbe
- Kike Amonarriz Gorria
- Josune Ariztondo Akarregi
- Mikel Arregi Perez
- Miren Azkarate Villar
- Lorea Bilbao Ibarra
- Garbiñe Biurrun Mancisidor
- Jasone Cenoz Iragi
- J. Iñaki Etxezarreta Alberdi
- Maite Goñi Eizmendi
- Jokin Gorozika Bidaurreazaga
- Mikel Irizar Intxausti
- Pello Jauregi Etxaniz
- Pilar Kaltzada González
- Imanol Larrea Mendizabal
- Miren Elixabete Larrinaga Artetxe
- Koikili Lertxundi del Campo
- Zesar Martinez Garcia
- Jasone Mendizabal Altuna
- Garbiñe Mendizabal Mendizabal
- Mertxe Mugika Balanzategi
- Erramun Osa Ibarloza
- Mikel Ozaita Azpiroz
- Xabier Paya Ruiz
- Pello Salaburu Etxeberria
- Jon Sarasua Maritxalar
- Kirmen Uribe Urbieta
- Ibon Usarralde Lasarte
- Jon Zarate Sesma

## 4. EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEAK EGINDAKO BILERAK

---

2017ko urriaren 3an bildu zen lehen aldiz EABren Batzorde Oso berritua, Iñigo Urkullu Lehendakariaren gidaritzapean. Legealdiko azken bilera berriz, 2019ko urriaren 9an, izan zen.

Tartean hainbat bilera egin dituzte Euskararen Aholku Batzorde Osoak nahiz Batzorde-atal bereziek. Hona hemen egindakoak, eta hartutako erabakiak:

### EABren Batzorde Osoa

2017-2020 ekitaldian 3 bilera egin zituen EABren Batzorde Osoak.

Hauek dira bilera horietan aurkeztutako eta landutako gaiak:

- EABren osaera eta funtzionamendua
- Euskal Herriko VI. Inkesta Soziolinguistikoa
- Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren lan ildoak
- Herri Aginteak Koordinatzeko Batzordeko (HAKOBA) lan nagusiak
- EABren batzorde-atalak abian jartzeko proposamena
- Euskarazko hedabideen finantzaziorako proposamena.
- Euskararen Agenda Estrategikoaren jarraipena.
- Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialak normalizatzeari buruzko dekretu berria.
- 86/1997 Dekretua aldatzera datorren dekretu berria, Euskadiko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duena.
- EABren batzorde-ataletako lanak.
- Arlo sozioekonomikoan euskara sustatzeko Plana.
- Helduen euskalduntze-alfabetatzea: matrikularen doakotasuna.
- Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren hainbat egitasmo:
  - Euskaraldia: ikerketaren emaitzak eta 2020rako aurreikuspenak.
  - Genero eta Hizkuntza berdintasunaren taldea.
- Batzordekideek mahairatutako hainbat gai

Hartutako erabakiak

- EABren batzorde-atal bereziak abian jartzeko proposamena onartzea: *Ingurune Digitalean Euskara Sustatzeko Batzorde-atal Berezia*, Gazteen Unibertsoa eta Euskara Batzorde-atal Berezia eta *Euskararen Erabilera eta Gizartearen Aktibazioa Sustatzeko Batzorde-atal Berezia*.
- Arlo sozioekonomikoan euskara sustatzeko Batzorde-atal Berezia 2018an sortzea
- Batzorde-atal Iraunkorraren osaera onartzea.

- Prest dagoenean, 86/1997 Dekretua aldatzera datorren dekretu berria (Euskadiko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duena) EABn aurkeztea eztabaidarako.

## Ingurune Digitalean Euskara Sustatzeko Batzorde-atal Berezia

2017-2020 ekitaldian Batzorde honen helburua izan da:

- Euskarazko IKTak: Gomendioak herri-aginteentzat (hemendik aurrera: Gomendioak) dokumentuan zehaztutako 12 gomendioen jarraipena egitea, puntuaz puntu aztertuta.
- Legealdi honetarako beste bide-orri bat egiteko urratsak ematea.
- Zaintza teknologikoa egitea, hau da, beste hizkuntza batzuetan arlo horretan zer egiten duten aztertzea.

Hamaika bilera egin ditu Ingurune Digitalean Euskara Sustatzeko Batzorde-atal Bereziak.

Hauek dira bilera horietan aurkeztutako eta landutako gaiak:

- *Euskarak 365 egun* egitasmoaren aurkezpena
- Batzordearen helburuak
- Gomendioen jarraipena
- Aurrera begirako estrategia eta proposamenak
- Batzorde-atalaren kolaborazio-gunea: proposamen berria
- *Euskarazko IKTak: gomendioak herri-aginteentzat* dokumentuaren jarraipena:
  - a. Diagnostikoaren egoera.
  - b. Bigarren gomendia: Estrategikoak diren enprekin etengabeko harremana eta elkarlanerako bideak sustatu:
    - Aurkezpen laburrak: PuntuEus Fundazioa, SPRI eta HPS.
    - Ondorioak eta proposamenak: protokoloa diseinatzeko ideiak jasotzea
- *Euskarazko IKTak: gomendioak herri-aginteentzat* dokumentuaren jarraipena: Bigarren gomendia: Estrategikoak diren enprekin etengabeko harremana eta elkarlanerako bideak sustatu:
  - a. Aurkezpen laburra: SPRI.
  - b. Eusko Jaurlaritzaren egitekoak: emandako urratsak
  - c. Protokoloa diseinatzeko proposamena.
- Diagnostikoaren egoera.
- *Euskarazko IKTak: gomendioak herri-aginteentzat* dokumentuari buruzko diagnostiko txostenaren aurkezpena.
- *Euskarazko IKTak: gomendioak herri-aginteentzat* dokumentuaren diagnostikoari egindako ekarpenak.
- *Hizkuntzen Berdintasuna Era Digitalean* txostenaren aurkezpena (Europako Parlamentua).
- Euskararen Adierazle Sistema: Ingurune Digitalerako adierazleen lanketa.
- *Euskarazko IKTak: Gomendioak herri-aginteentzat* dokumentuak zehaztutako gomendioen jarraipena. Aurkezpenak eta eztabaida:
  - a. Ikus-entzunezkoen alorrean eragin (6. gomendia):

- Iban Arantzabal (2deo)
- Alex Padilla (EITB)

b. Bideo-jokoen alorrean eragin (7. gomendioa):  
-Urtzi Odriozola (Game Erauntsia)

- HPSren lan-proposamena legealdi honetarako
- *Euskarazko IKTak: Gomendioak herri-aginteentzat* dokumentuak zehaztutako gomendioen jarraipena.
  - Hizkuntza-teknologiak garatzen lagundu eta berariazko plana garatu (12. gomendioa): Espainako Gobernuaren Mintzaira-teknologiak Sustatzeko Plana (IXA Taldea)
  - Publikoa den edukia sareratu (11. gomendioa): Liburutegi Digitala (Kultura Sailburuordetza)
- Euskarazko hedabideen finantzazio eredu berria (Euskara Sustatzeko Zuzendaritza).
- Bide-orri berriaren lanketa: lan-saioa.
- HPSren hainbat egitasmori buruzko informazioa:
  - - Itzultzaile automatikoa
  - - Hizkuntza Teknologien Planari buruzko txostena
- Bide-orri berriaren lanketa.
- Bide-orri berriaren lanketa: txosten-atalen aurkezpena:
  - - Josu Waliño: GIZARTEAREN KONTZIENTZIAZIOA INGURUNE DIGITALEAN (15 ‘)
  - - Iban Arantzabal: EUSKARAZKO IKUS-ENTZUNEZKOAK (15 ‘)
  - - Gorka Julio: EUSKARAREN ZAINZA TEKNOLOGIKOA INGURUNE DIGITALEAN (15 ‘)
  - - Maite Goñi, Montse Maritxalar eta Eli Pombo: DERRIGORREZKO HEZKUNTZAN EUSKARA SUSTATZEA INGURUNE DIGITALEAN (15 ‘)
- “Euskararen estrategia digitalaren bila, Europari begira” Jardunaldiari buruzko informazioa.
- Batzordekideek mahairatutako hainbat gai.

#### Hartutako erabakiak

- *Euskarak 365 egun* kanpaina ingurune digitalera nola eraman aztertzea.
- Batzordearen helburu nagusiak zehaztea: gomendioen jarraipena egitea, bide-orri berri bat lantzea, eta zaintza teknologikoa bermatzea.
- EITBrekin harremanetan jartzea, ikus-entzunezko edukiez hitz egiteko.
- Gomendioen gaur egungo egoera ezagutzeko diagnostikoa egitea.
- 12 Gomendioen diagnostiko-txostenaren lanketarekin jarraitzea.
- SPRIrekin harremanetan jartzea, beraien esperientziaren azalpena ekartzeko. Burujabetza Teknologikoaren gaiarekin lotutako esperientziak ere bilduko dira eta bilerara ekarriko dira.
- Galestarrekin batera burutu daitekeen programaren azalpena idaztea, aukerak aztertzeko.
- Aztertzea Etxepare eta Lehendakartzako nazioarteko estrategien azalpenak noiz ekar daitezkeen gune honetara.

- *Euskarazko IKTak: gomendioak herri-aginteentzat* dokumentuari buruzko diagnostikotxostena. Egindakoaren azalpena eta ateratako ondorioak, EABren Batzorde Osoan aurkeztea.
- Euskararen Adierazle Sistema (EAS), eta Europako parlamentuak onartu berri duen “Hizkuntzen Berdintasuna Era Digitalean” txostena batzordean lantzea.
- Gai-proposamen hauek lantzea: Liburutegi Digital Nazionala; EHUko Hitz Zentroa; Hedabideen ordenamendu berria.
- Gomendioen jarraipen etengabea egiten jarraitzea, bai eta zaintza teknologikoan lanean ere, legegaldi amaierarako bide-orri berria lantzeko helburuarekin.
- Ingurune digitaleko adierazleen inguruko ekarpenak egitea.
- Gazteen Unibertsoa eta Euskara Batzorde-atalaren elkarlanerako proposamena aztertzea.
- Bide-orri berria lantzeko prozedura adostu da.
- Egun bateko Jardunaldia egitea, bide-orri berriaren lanketari begira, beste toki batzuetako esperientziak jasotzeko.

## Gazteen Unibertsoa eta Euskara Batzorde-atal Berezia

2017-2020 ekitaldian Batzorde honen helburuak izan dira:

- ① Gazteen eta euskararen arteko harremanetan sakontzen jarraitzea, ikerketak bultzatuz
- ② Bereziki harreta jartzea gazteekin harremanetan ari diren profesional eta eragileengan
- ③ Gazteen euskarazko sorkuntza propioa aktibatzeneko baliabideak zabaldu, sendotu, sortu eta jakinaraztea

Hiru bilera egin ditu Gazteen Unibertsoa eta Euskara Batzorde-atal Bereziak.

### Hauek dira bilera horietan aurkeztutako eta landutako gaiak:

- Batzordearen helburua eta egitekoak
- Lanerako proposamenak
- *Euskarak 365 egun* egitasmoaren aurkezpena
- Gazteei zuzendutako aisialdi egitasmoen gaineko azterketaren aurkezpena.
- Gazteen gaineko proiektuei begiratzeko ardatza eta eman beharreko urratsak adostea.
- Batzorde-atalaren lan egitaraua.
- Batzordekideek mahairatutako hainbat gai.

### Hartutako erabakiak

- Batzorde-atal Bereziaren zuzendariak aurkeztutako proposamena onartzea.
- Gazteei zuzendutako aisialdi egitasmoen gaineko mapari ekitea, adin tartek markatuta.
- *Gazteak eta euskara. Gauzatutako praktiken gaineko gogoetarako Jardunaldiak* prestatzea.

- Ingurune Digitalean Euskara Sustatzeko Batzorde-atal Bereziarekin batera proiektu bat gauzatzea, bi batzorde-atalen arteko esparru komuna aztertu ondoren.
- *Gazteak eta euskara. Gauzatutako praktiken gaineko gogoetarako Jardunaldien* materialarekin eta azken urteetako ikerketekin, marko teorikoa jasoko duen dokumentua idaztea.

## Euskararen Erabilera eta Gizartearen Aktibazioa Sustatzeko Batzorde-atal Berezia

2017-2020 ekitaldian Batzorde honen helburua izan da euskararen erabilera eta gizarte aktibaziorako *Euskarak 365 egun* ekimenari jarraipena egitea, eta gogoeta gunea eratzea. Horrez gain, euskararen erabilera eta aktibaziorako praktika arrakastatsu eta berritzaileak identifikatu eta aztertzeko bidea ere egitea.

Bi bilera egin ditu Euskararen Erabilera eta Gizartearen Aktibazioa Sustatzeko Batzorde-atal Bereziak.

### **Hauek dira bilera horietan aurkeztutako eta landutako gaiak:**

- Batzorde-atalaren osaera eta helburua
- Lanerako proposamena: ikerketak eta dinamikak
- *Euskarak 365 egun* egitasmoaren aurkezpena
- Lasarteko esperientziaren gainean egindako ikerketaren aurkezpena
- *Euskarak 365 egun* egitasmoa: 2019rako proposamena
- Euskaraldiaren inguruan abiatutako ikerketa
- Euskararen erabilera eta aktibaziorako praktiken gaineko gogoeta eta proposamenak.
- Batzordekideek mahairatutako hainbat gai.

### **Hartutako erabakiak**

- Batzorde-atal honen helburuak nahiz lanerako proposamena.
- Unibertsitateko kideei aukera ematea *Euskaraldiaren* inguruko ikerketaren lanketan parte hartzeko.
- Batzordekideek euskararen erabilera eta gizartearen aktibaziorako gaien inguruko proposamenak eta ekarpenak egitea.
- Batzordekideek 2019ko *Euskaraldiaren* proposamenaren gainean ekarpenak egitea.
- Euskararen Aholku Batzordearen Osoko Bilkurara ematea:
  - Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, hainbat arlotan, Hezkuntzan besteak beste, ematen ari den eta eman asmo dituen urratsen azalpena.
  - Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritzak abian dituen eta begiz jota dituen ikerketen eta etorkizunean egin asmo dituen azalpena.
- Saiakera egitea *Euskarak 365 egun* egitasmoan sortzen ari diren eredu ezberdinak bailaraz bailara aurkezteko.

## Terminologia Batzorde-Atal Berezia

176/2007 Dekretuaren 21. artikulua ezartzen du Terminologiako Batzorde-atal Bereziak honako egiteko hauek izango dituela:

- Terminologiaren arloko lehentasunak ezartzea.
- Lanerako proposamenak egin eta urteko jarduera-planean sartzea.



- Terminologiako lanetarako irizpideak proposatzea.
- Kontzeptu bakarria izendatzeko hainbat termino daudenean, horien arteko lehentasunak ezartzea.
- Egindako terminologia-lanak onartzea.
- Finkatutako terminologia hedatzeko bideak proposatzea eta terminologia hori hedaraztea.
- Onartutako terminologiaren erabilera gomendatzea.
- Terminologiako Batzorde-atal Bereziaren ekintzen urteko oroitidazkia egitea eta Euskararen Aholku Batzordearen Batzorde-atal Iraunkorrari aurkeztea, Euskararen Aholku Batzordearen urteko oroitidazkian sartzeko.
- Euskararen Aholku Batzordearen Batzorde Osoak terminologiaren arloari buruz eskatzen dizkion oinarrizko azterketak egitea.

2017-2020 ekitaldian 12 bilera egin zituen Terminologia Batzorde-atal Bereziak.

### **Hartutako erabakiak**

Bilera horietan honako lanak onartu ditu Terminologia Batzordeak:

- 2014-2016 Jarduketa-planaren balantzea.
- 2018-2020 Jarduketa-plana.
- 8 hiztegi terminologiko aztertu eta onartu ditu, eta azkeneko biak ezik, gainontzekoak argitaratu ere egin ditu:
  - Hirigintza Zuzenbidea Hiztegia
  - Erlezaintza Hiztegia
  - Arkeologia Hiztegia
  - Zirkulazioa Hiztegia
  - Lorezaintza Hiztegia
  - Banka eta Aurrezkiei Hiztegia
  - Feminismoa eta Berdintasuna Hiztegia
  - Igeriketa Hiztegia
- Hainbat terminoren gainean azterketa puntualak egin ditu eta horien gainean erabakiak hartu ditu:
  - Zuzenbide arloko 'justicia restaurativa' eta horrekin lotutako hiru termino: 'conferencia', 'círculo' eta 'facilitador'.
  - Prozedura Zibilaren arloko 'tutela judicial efectiva'.
  - Ogasun arloko 'carga' / 'gravamen'.
- Arazoak sortarazten dituzten terminoen kasuan, normalizazio-txosten ugari egin ditu: *Abiadura-murriztaileak, ADR-Akordioa, ADR-baimena, Aire-konpresore-mugikor, Aklopagailu, Asfaltoz-garaztatzeko-kamioi, ATP-Akordioa, Atsedengune-zerbitzugune-erregai-zerbitzugune, Auto-partekatze, Bateria-ibilgailu, Batzar*

*errestauratibo, Berogailu-ibilgailu, Bidaia-partekatze, Bidaiari-gidari, Bidaiarien-garraio-salgaien-garraio, Bide-seinaleztatu-partekatu, Bide-markak-egiteko-makina, Bide-seinaleei-buruzko-konbentzioa-bide-zirkulazioari-buruzko-konbentzioa, Bideratzaile, Botila-kamioi, Dunper-kamioi, Erdibitzaile-albo-erdibitzaile, Furgoi-furgoneta, Garabi-auto-garabi-mugikor-autopropultsatu, Garraio-berezi, Garraio-erregular-eskatu-ahalako-garraio-linea, Garraio-eta-garraibideak, Garraio- publiko-garraio-pribatu-garraio-kolektibo, Garraiolari, Goragune-sakangune-zoruirregular, Haizetako-garbigailu-atzeko-beira-garbigailu, Hiri-garraio-hiriarteko-garraio, Hondeamakina, Hormigoi-kamioi-hormigoi-ponpadun-kamioi, Hozkailu-ibilgailu, Ibilgailu-astun-ibilgailu-arin, Ibilgailu-blindatu Ibilgailu-hozgarridun, Ibilgailu-isotermo, Iraulki-kamioi, Jardunean, Justizia errestauratibo azterketa, Justizia errestauratibo proposamena, Kaiola-kamioi Kamioi-barrubigun, Kapot, Kutxa-irekiko-kamioi-kutxa-itxiko-kamioi, Lerro, Lohia-erazteko-kamioi, Lurgain, Lurgain-eskubide, Lurpe, Marruskagailu, Motozikleta-sidekardun, Nazioarteko-garraio-barne-garraio, Nibelagailu, Ohartarazle-akustiko, Plataforma-kamioi-plataforma-beheratuko-kamioi, Ponpa-auto-suhiltzaile-kamioi, Prozesu errestauratibo, Salgai-arriskutsu, Salgai-galkor, Salgai, Sestra, Silo-kamioi, Txasis-bastidore, Unitate-elektrogeno-mugikor-transformazio-estazio-mugikor, Zabor-kamioi, Zapalgailu-bibratzaile-zapalgailu-estatiko, Zinemometro-radar, Zirkulu errestauratibo, Zulagailu-mugikor.*

Egindako terminologia-lan guztiak Euskaltermen eta Euskadi.eus webgunean daude eskuragarri: <http://www.euskadi.eus/euskararen-corpus-terminologia/web01-a2corpus/eu/>

## Toponimia Batzorde-Atal Berezia

176/2007 Dekretuaren 17. artikulua ezartzen du Toponimiako Batzorde-atal Bereziak honako egiteko hauek izango dituela:

- o Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari aholku ematea Euskal Autonomia Erkidegoko toponimoak bildu, berreskuratu, zerrendatu eta gordetzeko beharrei eta lehentasunei buruz.
- o Dena delako Administrazio eskudun batek eskatzen dionean, izen ofizialen normalizazioari buruzko aholkuak ematea.
- o Mapetan, liburuetan, errotuluetan eta, oro har, hedabideetan, toponimoak erabiltzeko eta idazteko irizpideak eta arauak proposatzea.
- o Eusko Jaurlaritzak toponimia arautzeko egiten dituen xedapen orokorrei buruzko txostena egitea, eta Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioek, bakoitzak bere eskumenen esparruan, toponimoen izen ofizialak aldatzeko edo egokitzeak eskatzen dituzten irizpenak ematea.
- o Batzorde-atalaren ekintzen urteko oroitidazkia egitea eta Euskararen Aholku Batzordearen Batzordeatal Iraunkorrari aurkeztea, Euskararen Aholku Batzordearen urteko oroitidazkian sartzeko.

o Euskararen Aholku Batzordearen Batzorde Osoak toponimiaren arloari buruz eskatzen dizkion oinarrizko azterketak egitea.

2017-2020 ekitaldian bost bilera egin zituen Toponimia Batzorde-atal Bereziak.

### **Hauek dira bilera horietan aurkeztutako eta landutako gaiak**

1. Batzordea abian jartzea.
2. 2013-2016 Jarduketa-planaren balantzea.
3. 2018-2020 Jarduketa-planaren proposamena.
4. Toponimia-lanerako metodologiari batzordekideek egindako zuzenketak, iradokizunak eta proposamenak eztabaidatzea eta azken testua onartzea
5. Lantalde bereziek landutako gaien berri ematea
6. Toponimia-lanerako metodologiaren azken testua onartzea
7. Euskaltzaindiko Onomastika Batzordeak aztertu beharrekoak.
8. Irizpide kartografikoak lantzeko lantaldeak egindako bilerak, "Entitate Geografikoak Hiztegia" dela-eta.
9. EAEko Izendegi Geografikoaren aurkezpentxoak egitea.
10. 179/2019 Dekretuaren V. Kapituluak (Udal-toponimia eta bideetako eta zerbitzuetako seinaleak) aurkeztea.
11. Toponimia lan-metodologiaren moldaketa aztertzea eta onartzea, hala badagokio.
12. Euskaltzaindiko Onomastika Batzordeak landutako proposamenak aztertzea eta onartzea, hala badagokio.

### **Hartutako erabakiak**

- Lan-metodologiaren gaineko zuzenketak, iradokizunak eta proposamenak egitea, hurrengo bileran eztabaidatu eta onartzeko
- Irizpideak lantzeko bi lantaldeak eratzea, eta abian jartzea.
- Kultura Sailburuordetzarekin hitz egitea ondare inmaterialaren barruan toponimiaren gaia aintzat har dezaten eskatzeko. Turismo Sailburuordetzarekin eta Ingurumena Sailburuordetzarekin ere harremanetan jartzea seinaleztapen kontuetan erabiltzen dituzten irizpideez galdetzeko eta elkarlana eskaintzeko.
- Irizpide Soziolinguistikoen lantaldean eta Irizpide Kartografikoen lantaldean landu diren gaien gainean ekarpenak egiteko epe bat zabaltzea. Epe hori amaitu eta gero, HPSko teknikariek, Euskaltzaindiako ordezkariarekin elkarlanean, proposamen bat luzatuko diote Toponimia Batzordeari azter dezan.
- "EAEko toponimoak kartografia ofizialean txertatzeko irizpideak" izeneko dokumentuaren 6.1. irizpidea aldatzea. Honela geldituko da: "Herri batek euskaraz izen bat eta erdaraz beste bat izanik, bi izenak elkarrekin erabili behar direnean, euskara-gaztelania hurrenkeran jarriko dira eta zehar marra (/) baten bidez bereizirik, zehar marraren ezker-eskuin tartea utzita. Dena den, kartografia ofizialean leku-izen ofizialak erabiliko dira, irizpide honekin bat ez badatoz ere".
- Googlerekin dagoen arazoa CENGN berriz ere planteatzea udazkeneko bileran.
- Toponimia-lanerako metodologia onartu da.
- Udalerrri barruko leku-izenak ofizialtzeko prozedura proposamena HPSn lantzea eta batzordekideei bidaltzea.



- Euskaltzaindiko Onomastika Batzordeak gai hauek lantzea: leku-izen konposatu itzulezinen idazketa, adokazioen idazketa eta etxe-izen garaikideen idazketa.
- Udaletara eta aldundietara bidaltzeko dokumentu bat prestatzea, leku-izenak onartzeko garaian prozedura bat jarraitzearen beharraz ohartarazteko.
- “EAEko toponimoak kartografia ofizialean txertatzeko irizpideak” dokumentu eguneratua batzordekideei bidaltzea.
- Euskaltzaindiak urtea amaitu baino lehen Toponimia Batzordearen idazkaritzari honako irizpideen gaineko proposamenak luzatuko dizkio: etxe-izen garaikideen idazketa; leku-izen konposatu itzulezinen idazketa eta adokazioen idazketa.
- Euskaltzaindiak aurkeztutako hiru txostenak (aurreko puntuan aipatutakoak) lanerako erreferentzia izango da eta, eguneroko lana dela eta, osatzen, zehazten jarraituko da
- EAEko Toponimia-lanerako Metodologia, 179/2019 Dekretuaren arabera egokitutakoa, onartu egin da. Hau da, legealdi honetan hartu den erabaki garrantzitsuenaren. Izan ere, dokumentu honek bi helburu ditu:
  1. EAEko toponimia-lanari dagokionez, gaur egun dagoen egoeraren argazkia egitea.
  2. Toponimia-alorrean dagoen eskumenen banaketa dela eta, eskumenak dituzten erakundeek lankidetzan, modu ordenatuan eta koordinatuan, lan egiteko metodologia bateratua eskaintzea denok helburu bakarra lortzeari begira jartzeko: EAEko toponimia normalizatu ofizial bakarra egon dadila guztion eskura ‘EAEko Izendegi Geografiko Ofizialean’ eta hori bera egon dadila Nomenclátor Geográfico Nacional-ean integratuta, mundu globalizatuaren eskura.

# 5. ERANSKINAK

---

## I. ERANSKINA

# Gazteak eta euskara. Gauzatutako praktiken gaineko gogoetarako Jardunaldiak

2018an Gazteen Unibertsoa eta Euskara Batzorde-atal Bereziak gazteen (hizkuntza) unibertsoaren inguruan martxan dauden ekimenak jaso zituen. Jasotako jarduerak agertutako helburuak zerrendatu eta aztertu ondoren, jarraian agertzen diren 4 helburu multzo nabarmendu zituen:

1. **Hizkuntzarekiko lotura subjektiboan eragin:** Motibazioa, sentsibilizazioa, gogoeta, aktibazioa, ahalduntzea, ludikotasuna.
2. **Hizkuntzaren erabileran eragin:** Euskarazko eskaintza garatu, handitu, zabaldu (aisialdian, kirolean, kulturean...). Erabilerarako estrategiak eta tresnak eman.
3. **Hizkuntza bilgune:** Elkartruketak bultzatu, beste balioekin batera (berdintasuna, aniztasuna...) hezi. Gazteen arteko sareak osatu eta elikatu.
4. **Hizkuntza sorgune:** Sormena gaitasuna eta erabilera bultzatzeko estrategia. Gazte sortzaileen sareak garatu. Kultur eragileen arteko elkarlana bultzatu.

Horren guztiaren gainean gogoeta zabala egitea erabaki zuen Batzordeak, jorratutako bideak, esperientzia onak edota etorkizunari begira egokiak izan daitezkeen lan ildoen inguruan. Helburua beraz, esperientzien trukea eta gogoeta egitea batetik, eta Batzorde-atal honen hurrengo urratsak zehaztea, bestetik. Eta horretarako bi egunetako jardunaldiak egin zituen Donostian, 2018ko azaroaren 22an eta 23an. Lehenengo egunean hitzaldiak izan ziren eta bigarrenegun, lan-taldeak. Hau egitaraua:

### 1. EGUNA: EUSKAL GAZTERIA, EUSKAL GAZTE HIZTUNAK

#### SAIO OROKORRA:

9:30-9:45: Sarrera. Miren Dobaran andrea, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordea

9:45-10:15: Gazteriaren argazkia. Ander Añibarro jauna, Eusko Jaurlaritzako Gazteria zuzendaria

10:15-11:00: Gazteria eta Hizkuntza. Jone Goirigolzarri andrea, Deustuko Unibertsitateko irakaslea

11:00-11:15: Galderak-iritziak

11:15-11:45: Atsedendia

11:45-12:05: Gazte hiztunak. Soziolinguistika Klusterra. Asier Basurto.

12:05-12:20: Galderak-iritziak

12:20-12:40: HIGA! Hizkuntza Gutxituetako Hitzun Gazteen II Topaketa. Beñat Garaio.

12:40-12:55: Galderak-iritziak

12:55-13:15. Gazteak eta Euskarari buruzko lantaldea: Eusko Ikaskuntza. Anjeles Iztueta, Libe Alvarez, Joseba Fernandez de Landa.

13:15-13:30: Galderak-iritziak

13:30- 14:00: Ondorioak:

Jone M. Hernandez, Gazteen Unibertsoa eta Euskara Batzorde-atal Bereziko zuzendaria.

Josune Zabala, Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako zuzendaria.

## 2. EGUNA: PRAKTIKETATIK EGINDAKO EKARPENAK

Lau talde osatuko dira. Talde bakoitzak gidari bat izango du. Taldea osatzen dutenen esperientziatik abiatuta adostutako galderei erantzuna emango zaie.

1. EUSKARA BILGUNE. Gidaria: Iñaki Eizmendi
2. EUSKARA SASOIAN. Gidaria: Jaime Altuna
3. EUSKARA SORGUNE. Gidaria: Ixiar Eizagirre
4. EUSKARA ZABALGUNE. Gidaria: Jon Lamarka

### TALDEEN DINAMIKA:

9:15-9:30: Egunaren aurkezpena: Jone M. Hernandez, Gazteen Unibertsoa eta Euskara Batzorde-atal Bereziko zuzendaria.

9:30-11:30: Talde lana

11:30-12:00: Atsedena

12:00-12:40: Partekatzea (talde lanak: aurkezpena)

12:45-13:30: Eztabaida eta iritziak.

Gidaria: Josune Zabala, Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako zuzendaria.

13:30-14:00: Ondorioak:

Jone M. Hernandez, Gazteen Unibertsoa eta Euskara Batzorde-atal Bereziko zuzendaria.

Josune Zabala, Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako zuzendaria.

### JARDUNALDIEN ONDORIOAK:

#### EUSKADIKO GAZTEAK ETA EUSKARA. HAINBAT IKERKETAREN EMAITZAK

- 15-29 urte arteko euskal gazteen % 69,3k dio euskaraz oso ondo edo nahiko ondo hitz egiten duela.
- Gazte euskaldunek gero eta gutxiago erabiltzen dute euskara beren lagunekin: 2004 eta 2016 artean metatutako galera 10 puntu baino gehiagokoa izan da jada: % 48,5etik % 38,1era jaitsi da lagunekin nagusiki euskara edo euskara eta gaztelera maila berean erabiltzen duten gazte euskaldunen ehunekoa.
- Euskaraz irakurtzeko ohiturak zertxobait atzera egin du azken urte hauetan. 2016an, 15-29 artekoen multzoan euskarazko irakurketa %41,8an zegoen, eta 25-29koen artean, 29,4an. Kontuan izanik 15-19 urte artekoen multzoan euskarazko irakurketa % 60,1ean dabilela, esan liteke argi dagoela hezkuntza-jarduerari lotutako ohitura dela, eta alde batera uzten joaten dela gazteriak heziketa arautua amaitu ahala.

- Bilbon eta Gasteizen, D ereduan ikasitako 15-16 urte bitarteko gazteen bizitzan euskarak oso presentzia ahula dauka. Eta egunerokotasunean euskara erabiltzen dutenek euskalkiak erabiltzen dituzte.
- Gazte askok euskara hizkuntza akademikotzat hartzen dute, eta ez komunikazio tresna gisa, erabiltzeko aukera gutxi daukatelako. Esperientzia positibo gehienak gazteleraz izaten dituzte.
- Euskara hizkuntza “sekretua” ere bihurtzen da batzuetan, hau da, besteek ez ulertzeko erabiltzen dute.
- Sare sozialek esparru sozial berri bat sortu dute. Gazteak Instagram-en daude.
- Hitzun berriak euskara etxetik kanpo ikasi dutenak dira. Profil anitz eta esperientzia ugari dago.
- Diskurtsoak tipologietara egokitu behar dira eta jarduerak horretara moldatu. Hiru tipologia ezberdin daude:
  - euskaldun oso sentitzen direnak, euskara euren identitatearen parte dela aitortzen dutenak eta euskaldun izatea euskararen erabilerarekin lotzen dutenak
  - euskara Euskal Herriko hizkuntza eta euskal kulturaren ezaugarria dela aitortzen dutenak, baina modu apalean; politikoki zuzenak: “ez dugu erabiltzen baina etorkizuna ona izango da...” diotenak.
  - euskara oso gaizki, inposizio moduan, bizi duten horiek; euskarari balio instrumentala soilik ematen diotenak.
- Hizkuntzen aukeraketan eta erabileran emozioek inpaktu handia daukate.
- Euskararekiko atxikimendua ez da nahikoa euskaraz egiteko.
- Gazteentzako, koadrila euskaldunak ez dira euskaraz egiten dutenak, euskararekiko atxikimendua adierazten dutenak baizik. Tarteka zerbait egiten dute euskaraz, eta hau beraientzat asko da.
- Eleaniztasuna gero eta ohikoagoa den une honetan, kode alternantzia edo euskañolaren fenomenoaren azterketa soziolinguistikoa egin beharko litzateke, erabileran eragin zuzena duten klabeak emango litzukeelako.
- Adin-tarte bakoitza hizkuntza batekin lotzen dute gazte askok: haurtzaroan euskaraz, gaztaroan gazteleraz.
- Euskal hitzun berrien euskararen erabilera hainbat faktorek baldintzatzen dute:
  - Testuinguru soziolinguistikoa
  - Euskaraz komunikatzen diren sare pertsonalak eta sozialak
  - Ezarritako hizkuntza ohitura
  - Hizkuntza gaitasuna (maila, lagunarteko erregistroa, euskalkiak...)
  - Erabilgarritasuna eta irudia
  - Euskararekiko jarrera eta bere egoera minorizatuaren kontzientzia
  - Inposizioaren diskurtsoa
  - Politikoki markatuaren ideia: euskalduna da profil konkretu bat
  - Nerabezaroaren ezaugarriak: talde onarpena, segurtasun falta...
- Bizitzan badaude momentu batzuk erabakigarriak izan daitezkeenak, “mudantza”k eman daitezkeenak; adibidez, lanean hastean, beste egoera soziolinguistikoko bat duen toki batera bizitzen joatean, seme-alabak izatean, aisialdiko talde batean sartzean... Edo kontzientzia hartzean (“klik” egitean). Horrekin batera, “kode alternantzia” dago; mudantzan aurrera eta atzera egin daiteke, testuinguruaren arabera, ez da bizitza osorako hautu bat. Gazteen kasuan muda prozesuak oso konplexuak dira.



## HAINBAT EREMUTAN EGINDAKOAK, ETA EGIN BEHARREKOAK

- Gazteak protagonista izan behar dute. Erabakiguneetan gazteak falta dira.
- Euskara aisialdira eta beste gune batzuetara zabaldu behar da. Gazteek euskara erabil dezaten antolatutako ekimenen eskaintza asko jota 20 urtera artekoa da; 20 urtetik gorakoentzako hutsunea dago.
- Gutxienez, elebidun hartzaileen kopurua gehitu beharko litzateke. Halaber, errealitate eleanitza onartu behar dugu, euskara babestu nahi badugu.
- Zuzentasunetik erabilerara pasatu behar da. Ez da hain garrantzitsua ondo erabiltzea, erabiltzea baizik, gustura erabiltzea, egoera libretan erabiltzea. Eta hau dago erabat lotuta bizipenekin, euskaraz bizipenak izatearekin.
- Gazteentzako antolatzen diren ekimenei bizipenak, emozioak dituzte oinarrian.
- Inposiziotik (“egin euskaraz” esatetik) lanketa estrategikora pasatu gara, gazteentzako antolatzen ditugun aisialdiko ekimenean.
- Sustatzetik ahalduzera pasa gara. Gazteentzako antolatzen diren jarduera askotan ahalduzera hori oso esplizitoa da: kontzientziak landu, hausnartu, ezagutu, ulertu.
- Gazteentzako antolatzen diren bilguneetan euskarari ezezik, beste balio batzuei ere pisua ematen zaie: aniztasuna, berdintasuna, ahalduzera eragile izatearen ikuspegitik. Halaber, helburuetako bat mudantzak eman daitezkeen oinarriak jartzea izaten da.
- Kodeen alternantzia eta mesedegarri-oztopatzaile egoerak kontuan hartzekoak dira aurrera begirako lanketetan. Hitzun berri kontzeptua ere bai, euskaldun berri kontzeptuaren orde.
- Euskarazko sorkuntza bizipozarekin eta antzeko sentimenduekin lotzen da. Honek guztiak hizkuntza gaitasunean oso eragin potentea dakar, bereziki hitzeko sormenean, gazteengan euskara gorpuzten doalako, ariketa hori nahiko modu naturalean egiten delako. Horrek ere, bestetik, hizkuntzarekiko harreman afektiboa ere badakar, eta hizkuntza hautuan ere eragina badauka.
- Gauza berriei irekita egon beharko genuke eta gazteek dakarten horri, bide eman, sormenari dagokionez.
- Beste kultur adierazpideen ereduak erabiltzen ditugu gazteekin, erakargarriagoak izateko, pentsatuz gurea ez dela nahiko erakargarria izango. Badira eredu onak, adibidez Azpeitiko Soreasu, Euskal Herri osora zabaldu beharrekoak.
- Euskal kulturak iraungo badu sortzaileak eta erreferenteak behar ditugu
- Apenas daki jendeak zer euskarazko produkzio dagoen. Badaude itzulpen onak, baina ez dira iristen irakurle gaztetxoengana.
- Euskaraz kontsumitzeko ohitura galtzen bada, etena baldin badago, gero oso zaila da berreskuratzea. Horrez gain, telebista bat gaztelaniaz ikusten bada, zaila da gero horretaz euskaraz hitz egitea.
- Hainbat ekimen arnagune moduan hartzen baditugu ere benetan jakin behar da zenbat gazterengana heltzen garen.
- Lan asko dago egiteko eta horretarako baliabideak falta dira. Emaitzak benetan nolakoak diren jakiteko ebaluazioa eta ikerkuntza behar dira, eta ez dago nahikoa baliabide horretarako.

- Praktika on ugari dago kirol klubetan (gazteekin arituko diren entrenatzaileak euskaldunak izan daitezten bermatzea, hizkuntza planak eta berdintasun planak elkarrekin joatea...) baina batez ere bi oztopo aurkitu dira:
  - Kirol federazioen jarduna ia guztiz erdalduna da.
  - Kirol arloan gaur egun dagoen ia formazio guztia ez dago euskaraz.
- Gida bat aurkeztuko dute, federazio nahiz klubaren kudeaketaren gainekoa, eta euskaraz jarri beharko litzateke.
- Kirol erakundeen estrategian lehentasuna eman behar zaio euskarari.
- Kirol eskaintza egiterako orduan edukia ere landu behar da: euskal kultura, euskal pilota, herri kirolak...
- Formazioa eman behar zaie monitorea/entrenatzaile gazteei, euskaraz egin dezaten. Agian, ardura handiegia jartzen dugu oso gazte diren monitoreaengan.
- Kirola egiten duen haurraren motibazioa landu behar da. Adb: kapitain izendatu euskara gehien erabiltzen duena.
- Garrantzitsua da koordinatzaileen figura izatea eskoletan, monitorea laguntzeko. Horrek euskararekiko sentsibilizazioa handiagotzen du.
- Kiroletarako diru-laguntzetatik euskararen sustapenerako ere partida bat bideratu beharko litzateke ondo zehaztuta eta, beti ere, taldeek ziurtatzen badute horretarako erabiltzen dutela.
- Transformazio digitalak kontsumitzeko ohitura diferenteak ekarriko ditu. Kontsumoa ez da garai batekoa, aldatu egin da. Norberak nahi duena eta nahi duenean kontsumitzen du. Aldaketa hau kontuan izanda gure produktuak beste ibilbide bat izan behar du. Oso atzeratuta gabilta.
- Interneten existitzen ez den hizkuntzak ez du etorkizunik. Guri gustatu ala ez bezeroak Youtuben, Instagramen eta Interneten daude.
- Tresna propioak sortu behar ditugu, soilik euskarazkoak; YouTuber euskalduna, adibidez.
- Estrategia digital amankomuna behar da.
- Produktu erakargarriak egin behar dira eta euskal ghettotik haratago. Produktu bat erdal mundura iristen bada gauza ona da.
- Kontsumitzen dena ez da euskara, produktua baizik. Produktu ona dagoenean beti funtzionatzen du.
- Jarraipena egin behar da arrakasta daukaten produktuekin; ezin da etena egon; saltoka gabilta. Eta honek guztiak dirua eta estrategia bat ere eskatzen ditu.
- Euskarak dena behar du, baina batez ere gauza komertzialak behar ditu.
- Produktuaren ikusgarritasunaren mesedetan baliabideak behar ditugu.
- Euskara ondo erabiltzen duen jendea behar da bai gidoigintzan eta baita komunikabideetan ere. Hizkuntza informalaren gabezia nabarmena da, gazteengana hurbildu ahal izateko.
- Gure edukiak bezeroak dauden plataformetan jarri behar ditugu: Netflix-en, Spotifyn...
- Dazkagun erreferenteak identifikatuta eduki beharko genituzke. Orain arte ez zaio garrantzirik eman. Identifikatu beharko genituzke sare sozialetan euskaraz indarra izan dezaketenak.
- Gizartean presentzia duten gaiak eta pertsona erreferenteak elkartuz gero, euskaraz bizi ez diren gazteak ere mobilizatzen dira.

## II. ERANSKINA

# Euskararen estrategia digitalaren bila, Europari begira. Jardunaldiak.

2020an "Euskararen estrategia digitalaren bila, Europari begira" izeneko Jardunaldia antolatu du Euskararen Aholku Batzordeak, "Ingurune Digitalean Euskara Sustatzeko" Batzorde-atalaren eskutik.

Jardunaldi horren helburua da Europako hainbat herrialdek bultzatutako estrategia digitalak ezagutzea, beraien hizkuntzen bizitasun digitalarekin eta hizkuntza teknologien garapenarekin lotuta. Horrela, honela zehaztu da egun horretarako behin-behineko parte-hartzea:

- Europako META-NET Sarea
- Islandiako Gobernua: Language Technology for Icelandic 2018-2022.
- Estoniako Gobernua: Digital Agenda 2020 for Estonia / Estonian Language Technology 2018-2027.
- Kataluniako Generalitatea: Promoció del .cat i del català a Internet
- Galesko Gobernua: Welsh language technology action plan
- Espainiako Gobernua: Plan de Impulso de las Tecnologías del Lenguaje
- Ondorioak

Aintzat hartu beharra dago Europako testuinguruan garrantzi handia hartu duela hizkuntza teknologiaren gaiak, eta interesgarria dela guretzat Europako markoa ezagutzea arlo honi dagokionez. Horrez gain, hainbat herrialdek hizkuntza teknologia planak jarri dituzte abian, ikuspuntu desberdinetatik abiatuta: herrialde horietako hizkuntza batzuk ez dituzte euskarak aurrean dituen erronkak, estatu hizkuntzak direlako, baina "minorizazio digitala" bizi dute ingelesaren aurrean; beste batzuk, aldiz, gure antzeko egoerak bizi dituzte eta antzeko egoerei egin beharko diete aurre. Guztiei begiratzea dagokigu, zer ikasi badugulako.

Jardunaldia batez ere euskal administrazio publikoetan ari diren hizkuntza arloko zein teknologia arloko kargu zein teknikariei, eta hizkuntza teknologiaren arloko zein ingurune digitaleko enpresei eta erakundeei bideratuta dago.

Hasiera batean Jardunaldia apirilaren 1erako aurreikusita zegoen, Donostian (Tabakaleran), baina Covid19-aren krisialdiaren eraginez ekitaldia bertan behera utzi behar izan zen. Aipatutako krisialdia hasi zenerako prestaketa-lanak eginda eta ekitaldirako gonbidapenak bidalita zeuden, eta esan beharra dago gonbidatuek oso harrera onez hartu zutela ekimena. Hala ere, aurreikusita zegoen datarako ezinezkoa izan zen aurrera egitea eta udazkenerako uztea proposatu zitzaien bai parte-hartzaileei baita gonbidatuei ere. Horrela, aurreikuspen berria da Jardunaldia presentzialki burutzea urriaren 28an Donostian (Tabakaleran), egoerak horretarako aukera emanez gero, eta bestela online bidezko bideari ekitea.